

GIL 127 Debako septariak



Debako septariak, tamaina askokoak (5 cm eta 15 cm bitarteko diametrokoak).

Kokapena

Ez dugu kokapenaren berri emango, espoliazio arriskua dagoelako.

Lagin batzuk ikus daitezke Algorriko interpretazio-zentroan.

Nola iritsi

Algorri zentroa Zumaiako erdialdean dago.

GILaren deskribapen laburra

Debako hondartzan, septaria-azaleratze bat dago, oso bakana, mundu osoan ezaguna mineralogiaren arloan.

10 bat metro lodiko zain bat da, non noduluek, haztean, barne-zartaduren sare bat garatu baitute barne-erretrekziozko prozesuen bidez. Zartadurak erradialak, zentrokideak eta, oro har, angelutsuak dira, eta mineralak betetzen dira (kaltzitaz, nagusiki) ireki ahala. Emaizta erroseta bat da, kolore argiko sigi-sagako erradio angeluarrak dituena hondo beltz matearen gainean nabarmenduak.



Debako septariak flysch beltzean agertzen diren hutsuneetan.

Gainerako noduluek bezala, septariak ere kanpo-morfologia esferiko edo obalatua dute, 35 cm-ainoko diametrokoa ardatz luzean. Emaiza ederra da, eta, horregatik, harri erdibitxi gisa erabil daitezke, edo apaingarri gisa.

Gaur egun, septaria-bilduma pribatu bat dago, ehunka alez osatua, eta ale batzuk erakusgai daude Algorriko interpretazio-zentroan.

Behatzeko punturik onena

Algorriko interpretazio-zentroa.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 25, GIL 119, GIL 27, GIL 101.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 23.



Septaria batek Debako flysch beltzean utzitako hutsunea.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa				
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				●
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:					